



12. AKTA

EZOHIKO UDALBATZA, 2005eko azaroaren 30ean izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko azaroaren hogeita hamarrean.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Rafaela Romero Pozo a. eta

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta

Mariví Roteta Mujika a. eta

Aitor Larrañga Burguera

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ezohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. José Luis Mtez. de Espronceda Luiña jaunak bere ezin etorria

justifikatu du, ez aldiz Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak. Halaber, bilkura honetan izan da Iruñe Soto Cotorro andrea, kontu-hartzaile lanetan.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzaraldiko akta 11. 05-10-25ekoa irakurri eta onartzea.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta azertu dute, eta Udalbatzak onartzea erabaki du eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea hurrengo aldaketak egin ondoren:

17. orrialdean, 3. puntuan, Jesús M^a García Garde jaunaren parte hartzean hurrengo paragrafoa gehitu behar da: “Goikoetxea jaunak egindako galderari erantzunez, esaten du proiektua bakarra dela eremu guztiarentzat”.

2.-Xedapen ofizialak eta alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Alkatearen eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen Liburua aurkeztu zaie aztertzeko bertaratuei, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- Horrez gain, Idazkariak beste epai-ebazpen hauen berri ere eman du:
 - Donostiako Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoen 2. Epaitegiko 314/05 epaia, 2005eko azaroaren 15ekoa, 193/05 Prozedura Laburtuari dagokiona, non Autoservicio Antarto S.L. errekurtsio-egileak Udal honen 05-02-23ko ebazpena aurkatzen duena. Delako udal-ebazpen horrek Autoservicio Antarto S.L.-k Mapfre konpainiaren ordezkari gisa egindako erreklamazioa ezesten zuen, eta 314/05 zenbakiko epaiaren erabakiak Errekurtsoa ezetsi du, eta aurkatutako administrazio-egintza zuzenbidearen arabera jo du.
 - Donostiako Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoen 2. Epaitegiko 313/05 epaia, 2005eko azaroaren 11koa, 330/04 Prozedura Laburtuari dagokiona, non Asesoramiento Técnico Contable Empresarial S.L. errekurtsio-egileak Hirigintzako Zinegotzi Ordezkarieren 2004ko ekainaren 17ko Udal honen ebazpena aurkatzen zuen, 2004ko martxoaren 1eko Tokiko Gobernu Batzarraren akordioaren aurka jarritako Baeraztertze Errekurtsoa ezesten zuena. 313/05 epaiaren erabakiak Errekurtsoa baietsi du eta errekurritutako ebazpena deusez jo du eta era berean aditzera ematen du errekurtsio-egileak lizentzia lortua duela administrazioaren isiltasuna dela medio.

3.Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua araberan).

Alkateak azkeneko saiotik hona egindako gestioen berri eman du. Hauek dira labur-labur:

- Madrilgo Urban Jarraipen Batzordean izan da. Batzorde horrek batzorde espezifiko bat deituko du gai hori aztertzeko.
- Molinao-ko enpresaburuek protesta azaldu dute gaur egun beren instalazioetara sartzeko bideak gaizki daudelako.
- Pasai San Pedroko Quorum Elkartearekin bilera.
- Ondoren, honako kontrol-eskuhartzeak izan dira:
 - José Luis Goikoetxea jaunak, EAJ-PNV alderdiko zinegotzi-taldearen izenean, adierazi du Udalbatza dela kontratazio-gaietan eskumena duena, jakinarazi baitiote proiektua eremu guztiari dagokiola, hala adierazten duelako Tokiko Jaurbidearen Xedapenen Testu Bateratuaren 125. artikulua.
 - Alkate andreak azaldu du horri buruzko txostena eskatuko duela.

ANTOLAKETA

4.- San Marcos Mankomunitatean ordezkoa izendatzea.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien gehiengoz erabaki du Lucía Querido Noceti andrearen ordez Lore Suárez Linazasoro andrea izendatzea Pasaiako Udala ordezkatzeko.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: aldeko botoa eman dute ZORTZI (8) zinegotzik, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2), eta ZAZPI (7) abstenitu egin dira, EAJ-PNV (4) eta EA (3).

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOA

5.- Jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketa. Karmengo Ama eskolaren irakasleen etxebizitzak.

Gai hau mahai gainean geratzen da.

GAZTERIA ETA KIROLAK

6.-Pasaiako gazteria politikaren ildo estrategikoak onartzea.

2005eko azaroaren 14ko Gazteria eta Kirol Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

"Pasaiako gazte-politikako lerro estrategikoak" izeneko dokumentu erantsia, 2005eko irailekoa, onartzea; beharrezko izapideak egin ondoren, espedientean dagoena.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: aldeko botoa eman dute ZORTZI (8) zinegotzik, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2), eta ZAZPI (7) zinegotzi abstenitu egin dira, EAJ-PNV (4), eta EA (3).
- Parte hartzeko tartean, honako hauek hartu dute hitza:
 - Mariví Roteta andreak, EA alderdiko zinegotzien izenean, herri honetan oraindik ere konpontzeko dagoen gaia dela azaldu nahi izan du. Hala eta guztiz ere, ez dago babestearen alde, baizik eta bakoitzak bere babak ateratzearen alde, erraztasun handirik eman gabe. Plan horretatik gehien gustatzen zaiona da barrutietan dinamizazio-taldeak sortuko direla. Gutxien gustatzen zaizkien alderdiei dagokienez, uste du Planak ez duela gehiegi sakontzen eta, gainera, profesionalak kontratatzea eskatzen duela; eta horrekin ia boluntario-lan guztia desagertuko litzateke. Gaztelekuetan ere fede handirik ez du, eta uste du kostu oso handia izango duela.
 - Guillermo Sánchez-Berra jaunak, PP alderdiko zinegotzien izenean, adierazi du bere alderdiak horren alde egingo duela, uste duelako gazteak gehiegi manipulatura egon daitezkeela, eta positiboagoa dela kontrola teknikariek eramatea (Gazte-lekuetan egiten denez) Gaztetxeetako kasua baino.
 - José Luis Goikoetxea jauna bat dator Mariví Roteta andre zinegotziak esandakoarekin, eta gaineratu du horrez gain kezka sortzen diola konnotazio ekonomikoak dituzten planak egiteak, inongo finantza-aurreikuspenik ez dagoela. Gastua handitzeko politikaren beste pauso bat da, Ekonomia Planaren barruan inkardinatuta gabe. Gainera, bestelako kontu batzuk batera definitu gabe geratzen dira, besteak beste, beharrezko izango diren Giza Baliabideak eta horiek kontratatzeko erabili beharreko bide juridikoa.
 - Lore Suárez adnreak, PSE-EE alderdiko zinegotzien izenean, adierazi du ez dela gazteria-politikaririk egon, baizik eta aisialdiarekin eta langintza-tailerrekin loturako programa-multzo bat. Azaldu du, Gazte Plan horren bitartez, Pasaiak Eusko Jaurlaritzaren gidalerroak gauzatzen dituela, bai eta beste erakunde batzuenak ere, hala nola Foruarenak. Izan ere, Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu zen, eta horren arabera, 2003. urtetik hasita erakunde horrek bere gain hartuko du Planaren finantzazioaren eta pertsonalaren kostuen %60. Gaineratu du, Gipuzkoako Foru Diputazioak oso iritzi ona duela Pasaiak egindako lanaz. Azkenik, Planaren ekintza-lerroen nondik norakoak azaldu ditu: programek hezkuntzari ematen diote lehentasuna, Gaztelekuaren sareari eta Pasaiako aisialdiko taldeei. Azpiegiturei dagokienez, hasi dituzte obrak dagoeneko lokal batean, eta bigarren Gaztelekua ere martxan dago jada. Bukatzeko, Gazteriako Zinegotzi Ordezkariek epe laburrerako (2 urte) laguntza ez ezik, luzerako laguntza ere eskatu du, etorkizunerako.

- EA alderdiko zinegotzien ordezkari Miriam Cano andreak Gazteriako Zinegotzi Ordezkariari gaitzetsi dio oposiziok ez dakiela ezer aipatu dituen jardueri buruz, eta eskatzen du informazioa jarraituagoa izatea Batzorde Informatzailean.
- Lore Suárez andreak erantzun du jarduerak hasita daudela Foru Aldundiak hala eskatu duelako eta, edonola ere, eman zuela haien berri azkeneko Batzorde Informatzailean.
- José Luis Goikoetxea jaunak eskatu du gaia mahai gainean uzteko.

OGASUNA

7.- Kreditu aldaketa kreditu transferentziaren bidez. Urban.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak Alkatearen kalitatezko botoarekin

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu transferentzia, hain zuzen ere:

1.08.00.601.511.60.01.2005	Urban	-29.950
1.08.00.643.511.60.01.2005	Urban: trabajos técnicos	+29.950

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: bi boto-txandatan enpatea izan da; ZAZPI (7) aldeko boto, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta ZAZPI (7) kontrako boto, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdiko zinegotzienak, eta abstentzio bat PP alderdiko zinegotziarena. Azkenik, Alkate andrearen kalitateko botoak erabaki du.

8.- Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien bidez. Lege aholkularitza.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak Alkatearen kalitatezko botoarekin

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

1.02.00.227.611.00.99.2005	KEEL Lege aholkularitza TROE Asesoría legal	6.856
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako gerakina Remanente de Tesorería	6.856

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: bi boto-txandatan enpatea izan da; ZAZPI (7) aldeko boto, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta ZAZPI (7) kontrako boto, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdiko zinegotzienak, eta abstentzio bat PP alderdiko zinegotziarena. Azkenik, Alkate andrearen kalitateko botoak erabaki du.
- Parte-hartzearen tartean, honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak salatu du espediente horrek ez duela Kontu-hartzailetzako sailaren txostenik, orain arte izandako irizpidea aldatzeari buruz.
 - Ordezko kontu-hartzaile andre Irune Soto andreak adierazi du Kontuhartzailetza Departamentuak irizpide hori gehiago landuko duela, eta horren berri hurrengo Batzorde Informatzailean emango duela.

9.- Kreditu aldaketa kreditu transferentziaren bidez. Gazteriaren jarduerak.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu transferentzia, hain zuzen ere:

1.06.00.226.457.01.01.2005	Hainbat gastu Gastos diversos	-4.500
1.06.00.226.456.20.06.2005	Gazteriaren jarduerak Actividades de juventud	+4.500

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: ZORTZI (8) boto alde, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta ZAZPI (7) boto kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdikoena.
- Parte-hartzearen tartean, honakoek hartu dute hitza:

- José Luis Goikoetxea jaunak azaldu du partida hau lehendik ere zabaldu zela eta arazorik gabe har dezakeena baimendua.
- Alkate andreak esan du horri buruz kontuhartzaileak egindako txostena helaraziko duela.

10.- Kreditu aldaketa transferentziaren bidez. Informatika.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu transferentzia, hain zuzen ere:

1.0100.626.121.01.01.2005	Komunikazioetarako sarea Red de comunicaciones	+1.571,00
1.0100.649.121.01.01 2005	Sofware lizentziak Licencias Software	-1.571,00

- Aktan ager dadin, hona hemen botazioaren emaitza: ZORTZI (8) boto alde, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2) alderdiko zinegotzienak eta ZAZPI (7) abstentzio, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdietako zinegotzienak

11.- Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien bidez. Musikarako laguntza.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu transferentzia, hain zuzen ere:

1.05.00.431.451.40.02.2005	Udal ekarpena: dirulaguntzak emateko Aportación municipal: para subvenciones	20.114
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako gerakina Remanente de Tesorería	20.114

12.- Kreditu aldaketa Zaharren Udal Egoitzaren aurrekontuan, kreditu gehigarrien bidez. Hainbat inbertsio.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien aho batez

ERABAK DU

Zaharren Udal Egoitzaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

1.01.00.622.313.80.01.2005	Hainbat inbertsio Inversiones	58.000
2.01.00.870.313.80.01.2005	Diruzaintzako gerakina Remanente Tesorería	58.000

13.- Kreditu aldaketa kreditu transferentziaren bidez. Haur eskolaren egokitzapena.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu transferentzia, hain zuzen ere:

1.0500.625.451.10.99.2005	Antxoko Kulturgunea: ekipamendua Equipamiento Antxoko Kulturgunea	-16.604,36
1 0900.622.421.00.01 2005	Haur eskolaren egokitzapena Acondicionamiento escuela infantil	+7.604,36
1 0500.214.451.30.01 2005	Altzariak eta lanabesak Mobiliario y enseres	+9.000,00

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: ZORTZI (8) boto alde, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2) alderdiko zinegotzienak eta ZAZPI (7) boto kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdiko zinegotzienak.
- Parte-hartzearen tartean, honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak aurreratu du bere alderdiak abstentzioari eutsiko diola, eta gaineratu du paradoxa iruditzen zaiola orain kreditu nahikoa ez dagoela deskubritzea, duela gutxi 90.000 euro bideratu direnez.

14.- Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien bidez. Gazteriaren jarduerak.

2005eko azaroaren 23ko Ogasunaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, Udalbatzak bertaratutako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

Udalaren Aurrekontuan, kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

1.0600.226.456.20.06.2005	Gazteriaren jarduerak Actividades de juventud	+10.000,00
2 0200.870.611.00.01 2005	Diruzaintzako gerakina Remanente de tesoreria	-10.000,00

- Akatan jasota gera dadin, hona hemen botazioen emaitza: ZORTZI (8) boto alde, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta ZAZPI (7) abstentzio, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdiko zinegotzienak.
- Parte-hartzearen txandan, honako hauek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak nabarmendu nahi izan du puntu honetan ere kontuhartzaitzak irizpidea aldatu duela.

15.- 05-10-25eko Udalbatzarren akordioaren zuzenketa. Kobraezinen eta erreferentziako 15. zerrenda.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez eta 2005eko azaroaren 23an Ogasun eta Ondarearen Batzordean ikusirik, Herri Administrazio eta Prozedura Administrazio Arruntaren Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105.2 artikuluan aurreikusten denaren arabera,

ERABAKI DU

Ofizios zuzentzea hurrengo okerra, “Kobraezinen eta erreferentziako kobraezinen 15. Zerrendan” 2005eko urriaren 25eko udalbatzarreko akordioan aurkitua hurrengo eran:

“Kobraezinen eta erreferentziako kobraezinen 15. zerrenda onartzea, guztira, 14.703,38 euro, beharrezkoa diligentziak egin ondoren espedientean jasota dagoena.”

Dioen lekuan



“Kobraezinen eta erreferentziazko kobraezinen 15. zerrenda onartzea, guztira, 15.120,41 euro, beharrezkoa diligentziak egin ondoren espedientean jasota dagoena.”

Esan behar du.

16.- Kreditu aldaketaren proposamena. Usoz. EAJ-PNV taldeak aurkeztuta eta Alkatetzak aurkeztuta.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez hala adostu dutenez eta EAJ-PNV udal-alderdiak aurkeztutako proposamena atzera bota ondoren, proposamen hau aurkeztu du:

“ALKATETZAREN PROPOSAMENA. 05-11-23koa.

Agiri honen bidez, ondorengo akordioa hartzeko proposamena egiten dio udalbatzari:

Kredigua gaitzea, Usoz orubea egokitzeko obran finantzatzeko (Antxo barrutia) eta horretarako 08.600.432.02 ESTRATALDEA LURRAK ESKURATZEKO partidan 138.250€ko kreditu aldaketa egitea.

ARRAZOIAK

Gaur egun Usoz orubeak hirtartu beharra du, behin-behinean bada ere (Obra eta Zerbitzuetako Sailak egindako aurreikuspenaren arabera). Horrela, behin betiko hiritartze-lanak egiten diren bitartean, inguru horretako aparkalekua duindu eta antolatu egingo da.

Aparkaleku horretan autoak aparkatzen dituzten barruti horretako herritarrentzat mesedegarria izango da gune hori aldi baterako egokitzea, izan ere zoladura hobea jarriko da, nahikoa argi izango da bertan eta antolatu egingo da espazioa, ahalik eta autorik gehien aparka daitezten bertan. Era berean, nola herritarrek, hala autoek segurtasun handiagoa izango dute.

- Parte-hartzearen txandan, honako hauek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak adierazi du bere alderdiak egin zuen proposamena erretiratu egingo duela, aurkeztu zuenean helburua gauzak mugiaraztea baitzen, eta hori lortu baita jada. Bestalde, Aurrekontuaren Kontrako 62. zuzenketak (EAJ-PNV alderdiak aurkeztutakoak) Estrataldeako partida mugitzeko aukera ikusten zuen, eta gertakariak arrazoia eman digute.

17.- Kreditu aldaketa. Gizarte Zentroa Donibanen. EA eta EAJ-PNV taldeak aurkeztuta.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien gehiengoak hala erabakita, eza eman dio EAJ-PNV eta EA alderdiek 2005eko azaroaren 4an aurkeztutako proposamen honi:

“Udaleko EAJ-PNV eta EA alderdi politikoek uste dugu 2005eko urriaren 25ean eginiko Osoko Bilkuran hartutako azken akordioak —hain justu Pasai Donibanerako Gizarte Zentroa finantzatu eta, ondorioz, epe laburrean zentroa jartzearen ingurukoak— erabat kontra daudela 2005eko ekainaren 28an Osoko Bilkuran onartutako proposamenaren edukiekin, eta, horrenbestez, Gizarte Zentro hori epe laburrean egiteko aukera guztiz ezabatzen dutela.

Halaber, borondate politikoak aurrekontuetan imajinazioa erabiltzera bultza behar gaituela uste dugunez, eskatzen dugu 2005eko urriaren 25eko akordioek aurrekontu eta finantzatan eragin duten anomalia zuzentzea, eta, premiaz honako akordioa hartzeko proposamena egitea;

(...)

1) Udaleko Aurrekontu Orokorretan aparteko kredituak sortzea 2005eko ekitaldirako, “BEEL kale-garbiketa” partidari aurreikusitako aurrekontu-soberakinetik finantzatuta, honela:

ESTADO DE GASTOS		
1.09.00.227.442.20.01.2005	TROE limpieza viaria	-1.000.000 €
1.04.00.622.456.10.01.2005	Obras implantación nuevo Centro Social en el solar denominado casa del médico en Pasai Donibane.	1.000.000 €

2) Akordio hau Pasai Donibaneko “Aitonon Aterpea” erretiratu eta pentsionisten elkarteari jakinaraztea.

- Aktan jasota gera dadin, honako hau izan da botazioaren emaitza: ZAZPI (7) boto alde, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderditako zinegotzienak, eta ZORTZI (8) boto kontra, PSE-EE (5), PP (1) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak.

18.- Alkatetzaren kreditu aldaketaren proposamena. Zerbitzuak.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien gehiengoz Alkatetzaren hurrengo proposamena onartzen du, kreditu aldaketak (Zerbitzuak), hain zuzen ere:

KREDITU GEHIGARRIAK/CREDITOS ADICIONALES

1.0900.221.452.10.01.2005	Kirolak: energi hornidura	+	9.691,75
1.0900.221.422.00.03.2005	Hezkuntza: gasa	+	10.064,07
1.0900.227.441.10.01.2005	KEEL ur saneamendua	+	3.460,00
1.0900.226.454.00.99.2005	Zerbitzuak: jaietako gastu orokorrak	+	121
1.0900.213.442.10.01.2005	Hondakinen kudeaketa: garraio materiala	+	12.600,00
1.0900.211.457.01.01.2005	Aterpea: KMK eraikina eta gainerako eraikuntzak	+	2.500

1.0900.213.449.00.01.2005	Zerbitzuak: KMK garraio materiala	+	19.300
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako gerakina	-	57.736,82
1.0900.221.452.10.01.2005	Deportes: suministro de energía	+	9.691,75
1.0900.221.422.00.03.2005	Educación: gas	+	10.064,07
1.0900.227.441.10.01.2005	TROE saneamiento de aguas	+	3.460,00
1.0900.226.454.00.99.2005	Servicios: gastos generales de fiestas	+	121
1.0900.213.442.10.01.2005	Gestión de residuos: transporte de material	+	12.600,00
1.0900.211.457.01.01.2005	Albergue: RMC Edificios y otras construcciones	+	2.500
1.0900.213.449.00.01.2005	Servicios: RMC material de transporte	+	19.300
2.02.00.870.611.00.01.2005	Remanente Tesorería	-	57.736,82

KREDITU TRANSFERENTZIAK/TRANSFERENCIA CREDITOS

1.0900.221.432.00.01.2005	Hirigintza eta arkitektura: Energi hornidura	-	400,00
1.0900.221.422.00.01.2005	Haur eskola: energi hornidura	+	400,00
1.0900.221.622.20.01.2005	Azokak: energi hornidura	-	1.200,00
1.0900.221.422.00.01.2005	Haur eskola: energi hornidura	+	1.200,00
1.0900.227.441.10.01.2005	KEEL saneamendu sarearen mantenimendua	-	150,00
1.0900.221.449.00.01.2005	Zerbitzuak: energi hornidura	+	150,00
1.0900.221.451.30.01.2005	Liburutegiak: energi hornidura	-	570,00
1.0900.221.449.00.01.2005	Zerbitzuak: energi hornidura	+	570,00
1.0900.221.433.00.01.2005	Herriko argiak: kaleetako energi hornidura	-	1.750,00
1.0900.221.449.00.01.2005	Zerbitzuak: energi hornidura	+	1.750,00
1.0900.227.441.10.01.2005	KEEL saneamendu sarearen mantenimendua	-	50,00
1.0900.221.611.00.01.2005	Ekonomi eta finantza admin.: energi hornidura	+	50,00
1.0900.211.455.10.01.2005	Euskara: KMK eraikina eta gainerako eraikuntzak	-	3.225,00
1.0900.221.121.00.03.2005	Admin. orokorra: gasa	+	3.225,00
1.0900.211.456.10.01.2005	3. adina: KMK eraikina eta gainerako eraikuntzak	-	2.850,00
1.0900.221.121.00.03.2005	Admin. orokorra: gasa	+	2.850,00
1.0900.212.122.00.01.2005	Epaitegiak: KMK makineria eta instalazioak	-	2.192,00

1.0900.219.222.10.01.2005	Udaltzaingoa: bide seinalizazioa	-	3.200,00
1.0900.625.222.10.99.2005	Udaltzaingoa: bide-seinaleak	-	3.700,00
1.0900.211.432.00.01.2005	Hirigintza eta arkitektura: KMK eraikina eta gainerako eraikuntzak	-	1.207,00
1.0900.212.432.00.01.2005	Hirigintza eta arkitektura: KMK makineria eta instalazioak	-	2.200,00
1.0900.210.441.10.01.2005	KMK hornidura eta saneamendu sarea	-	5.000,00
1.0900.211.449.00.01.2005	Zerbitzuak: KMK eraikina eta gainerako eraikuntzak	+	10.300,00
1.0900.226.454.00.99.2005	Zerbitzuak: jaietako gastu orokorrak	+	7.199,00
1.0900.221.432.00.01.2005	Urbanismo y arquitectura: suministro de energía	-	400,00
1.0900.221.422.00.01.2005	Escuela infantil: suministro de energía	+	400,00
1.0900.221.622.20.01.2005	Mercados: suministro de energía	-	1.200,00
1.0900.221.422.00.01.2005	Escuela Infantil: suministro de energía	+	1.200,00
1.0900.227.441.10.01.2005	TROE mantenimiento redes de saneamiento	-	150,00
1.0900.221.449.00.01.2005	Servicios: suministro de energía	+	150,00
1.0900.221.451.30.01.2005	Bibliotecas: suministro de energía	-	570,00
1.0900.221.449.00.01.2005	Servicios: suministro de energía	+	570,00
1.0900.221.433.00.01.2005	Alumbrado público: suministro de energía vías públicas	-	1.750,00
1.0900.221.449.00.01.2005	Servicios: suministro de energía	+	1.750,00
1.0900.227.441.10.01.2005	TROE mantenimiento redes de saneamiento	-	50,00
1.0900.221.611.00.01.2005	Admin.económica-financiera: suministro energía	+	50,00
1.0900.211.455.10.01.2005	Euskara: RMC edificio y otras construcciones	-	3.225,00
1.0900.221.121.00.03.2005	Admin. general: gas	+	3.225,00
1.0900.211.456.10.01.2005	3. edad: RMC edificio y otras construcciones	-	2.850,00
1.0900.221.121.00.03.2005	Admin.general: gas	+	2.850,00
1.0900.212.122.00.01.2005	Juzgados: RMC maquinaria e instalaciones	-	2.192,00
1.0900.219.222.10.01.2005	Guardia Municipal: señalización viaria	-	3.200,00
1.0900.625.222.10.99.2005	Guardia Municipal: señales viarias	-	3.700,00
1.0900.211.432.00.01.2005	Urbanismo y arquitectura: RMC edificio y otras construcciones	-	1.207,00
1.0900.212.432.00.01.2005	Urbanismo y arquitectura: RMC maquinaria e instalaciones	-	2.200,00
1.0900.210.441.10.01.2005	RMC suministro y red de saneamiento	-	5.000,00



1.0900.211.449.00.01.2005	Servicios: RMC edificio y otras construcciones	+	10.300,00
1.0900.226.454.00.99.2005	Servicios: gastos generales fiestas	+	7.199,00

- A efectos de su constancia el acta el resultado de la votación es el siguiente: OCHO (8) votos favorables emitidos por los concejales del PSE-EE (5), PP (1) y EB-IU (2), votando en contra los SIETE (7) concejales de EAJ-PNV (4) y EA (3).

- Parte-hartzearen txandan, honako hauek hartu dute hitza:

- José Luis Goikoetxea jaunak adieazi du jokamolde hau trufa hutsa dela.

Eta, beste gairik ezean, 12:35etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.